


Euskal AEko Merkataritzaren sektoreko salmentak % 2,7 jaitsi dira 2023ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, jaitsiera % 0,7koa izan da

Eustaten datuen arabera, *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa* biltzen dituen *Merkataritzaren* sektorea % 2,7 jaitsi da urtetik urterako balioetan 2023ko hirugarren hiruhilekoan, prezio konstanteetan eta egutegi-eraginak kendu ondoren.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta bidezko urtaro-eraginak kenduta, salmentak % 0,7 jaitsi dira 2023ko hirugarren hiruhilekoan.

Merkataritzako indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzaren barruan, salmenten urtetik urterako bilakaera positiboa izan da *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren* sektorean (% 6,3ko igoera) eta *Txikizkako merkataritzaren* sektorean (% 0,7ko igoera aurreko urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta). *Handizkako merkataritzaren* sektorean, berriz, salmentak % 6,6 jaitsi dira urtetik urterako balioetan.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bidezko urtaro-eraginak kenduta, beherakada bat gertatu da *Handizkako merkataritza* zein *Txikizkako merkataritza* (% 1,3ko eta % 0,1eko jaitsiera, hurrenez hurren). *Ibilgailuen salmenta eta konponketaren* azpisektorean, berriz, salmentek % 1,7ko igoera izan dute aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AEko zerbitzuen kointura-indizea. Merkataritza. Behin-behineko datuak. 2023/III



Eustat-Euskal Estatistika Erakundea



	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	-2,7	-0,7	-1,8
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	6,3	1,7	3,8
Handizkako merkataritza	-6,6	-1,3	-4,8
Txikizkako merkataritza	0,7	-0,1	1,1
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	-2,6	0,1	-2,0
Bizkaia	-2,1	-0,2	-1,6
Gipuzkoa	-3,6	-1,8	-1,9
ENPLEGUA	1,3	0,4	1,2

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2023ko Azaroaren 15a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointura-indizea

Merkataritzaren sektoreko salmentek, prezio konstanteetan, urtetik urterako beherakada bat izan dute hiru lurralde historikoetan. Gipuzkoan, jaitsiera % 3,6koa izan da, Araban % 2,6koa eta, azkenik, Bizkaian % 2,1ekoa.

2023ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoako salmentek % 1,8ko jaitsiera izan dute, eta Bizkaikoek, berriz, % 0,2koa. Araban, berriz, salmentak % 0,1 igo dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AEko *Merkataritzaren* sektoreko landunen indizeak % 1,3ko igoera izan du 2023ko hirugarren hiruhilekoan, 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, igoera % 0,4ra iritsi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea % **96,3ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62